

45

HAURREN MEZA

L. LÉON aphezak
argitarat emana
bigarren aldikotz



CHEZ L'AUTEUR

Curé-doyen d'Ustaritz
(Basses-Pyrénées)

ATV

492

H- 67376

F- 71302

AFV

29492



HAURREN MEZA

MEZA AINTZINEAN

BATEK. — Ene Jainko Jauna, — Meza
saindurat ethorria naiz — zure adoratzeko,

DENEK. — Zuri milesker erraiteko,

BATEK. — Zuri barkamendu galdatzeko
gure bekatuez,

DENEK. — Zuri grazia eta laguntza gal-
datzeko.

BATEK. — O Jesus ona, — badakit zure
Gorputza eta Odola — sakrifikatu ditutzula
Ortzegun-Sainduz — ogiaren eta arnoaren
itchuren azpian emanetz;

DENEK. — Badakit ere zure Gorputza eta
Odola — sakrifikatu ditutzula Ortzirale-
Sainduz — kurutzearen gainean hilez;

BATEK. — Eta geroztik egun guzietz —
Meza sainduan — Sakrifizio bera egiten du-
zula, — zure Aitaren adoratzeko guretzat,

DENEK. — Zure Aitari milesker erraiteko
guretzat,

BATEK. — Zure Aitari barkamendu galdatzeko guretzat,

DENEK. — Zure Aitari grazia eta laguntza galdatzeko guretzat,

BATEK. — Guretzat bai, bainan ez gu gabe.

DENEK. — Mezarat ethorria naiz beraz, o Jesus, — zurekin eta guretzat Jainkoari ohore emaitako,

BATEK. — Zurekin eta guretzat milesker erraiteko Jainkoari,

DENEK. — Zurekin eta guretzat barkamendu galdatzeko Jainkoari,

BATEK. — Zurekin eta guretzat grazia eta laguntza galdatzeko Jainkoari.

DENEK. — O Jesus, lagunt gaitzazu, othoi, — Meza huntan ontsa egoiten eta khartsuki othoitz egiten.

MEZA SAINDUA

I. — OTHOITZ ETA ERAKASPEN

(*Apheza aldare beherean da*)

BATEK. — Meza haste.

DENEK. — Aitaren eta Semearen eta Izpiritu-Sainduaren izenean. Halabiz.

BATEK. — Jainko guziz ona, — konfientzia osoa badut zu baitan.

DENEK. — Zu zare ene zoriona.

BATEK. — Zu ene indarra.

DENEK. — Haundi zazu, — azkar zazu fedearene bihotzean.

BATEK. — Ohore Aitari — eta Semeari — eta Izpiritu-Sainduari.

DENEK. — Hastean bezala — orai ere bai — eta bethi — eta menderen mende. Halabiz.

Confiteor

BATEK. — Galda dezagun barkamendu Jainko maiteari, — erranez « *Kofesatzen nitzaio* ».

DENEK. — Kofesatzen nitzaio Jainko Aita botere guzia duenari,

BATEK. — Maria bethi Birjina dohatsuari,

DENEK. — Mikael Arkanjelu dohatsuari,
— Joanes-Batista dohatsuari,

BATEK. — Petri eta Paulo apostolu sainduei,

DENEK. — Saindu guziei — eta zuri, ene Aita, —

BATEK. — Zeren egin baitut sobera bekatu — gogoz, hitzez eta obraz,

DENEK. — Ene faltaz, — ene faltaz, — ene falta haundiaz.

BATEK. — Hortakotz othoitz egiten diot — Maria bethi Birjina dohatsuari,

DENEK. — Mikael Arkanjelu dohatsuari,
— Joanes-Batista dohatsuari,

BATEK. — Petri eta Paulo apostolu sainduei,

DENEK. — Saindu guziei — eta zuri, ene Aita,

BATEK. — Egin dezozuen enetzat othoitz gure Jainko Jaunari.

DENEK. — Jainko botere guzia duenari urrikal gakizkola,

BATEK. — Eta gure bekatuak barkaturik

— hel-araz gaitzala bethiereko bizitzerat.
Halabiz.

DENEK. — Gure bekatuen barkamendua,
— barkamendu osoa — eman dezagula
Jainko botere guzia duenak eta urrikalmen-
dutsuak. Halabiz.

Introita

(Apheza aldare eskuinean da)

BATEK. — Jesus guziz ona, — zure Gor-
putz Sainduarekin hazten gaitutzu.

DENEK. — Eta zure Odolarekin azkartzen.

BATEK. — Jainkoaren bizia hola emaiten
daukun Jesus maiteari,

DENEK. — Ohore. — laudorio, — bozka-
rio — eta milesker bihotz guziaz.

BATEK. — Ohore Aitari eta Semeari eta
Izpiritu-Sainduari.

DENEK. — Hastean bezala, orai ere bai —
eta bethi — eta menderen mende. Halabiz.

Kyrie, eleison

(Apheza aldare erdian da)

BATEK. — Jauna, urrikal zakizkigu.

DENEK. — Jauna, urrikal zakizkigu.

- BATEK. — Jauna, urrikal zakizkigu.
DENEK. — Jesu-Kristo, urrikal zakizkigu.
BATEK. — Jesu-Kristo, urrikal zakizkigu.
DENEK. — Jesu-Kristo, urrikal zakizkigu.
BATEK. — Jauna, urrikal zakizkigu.
DENEK. — Jauna, urrikal zakizkigu, —
Jauna, urrikal zakizkigu.

Gloria in excelsis

BATEK. — Ohore Jainkoari zeru gore-
nean,

DENEK. — Bake mundu huntan bihotz
onekoeri.

BATEK. — Jainko guziz haundia, adorat-
zen zaitugu,

DENEK. — Milesker erraiten dautzugu.

BATEK. — O Jesus, gure bekatuak zure
gain hartu ditutzuna,

DENEK. — Urrikal zakizkigu, — barka
zagugu!

BATEK. — O Jesus, gure bekatuak zure
gain hartu ditutzuna, — entzun zazu gure
othoitza.

DENEK. — Othoi, lagunt gaitzazu.

Oremus

(*Apheza aldare eskuinean da*)

BATEK. — O Jesus Jauna, — guk zure so-
frikario izigarriak bethi gogoan atchikit-
zeko, — egin duzu Gorputz-Sainduko sa-
kramendu guziz ederra;

DENEK. — Iguzu, othoi, — Sakramendu
hori bethi ontsa ohoratuz, — zure Gorputz
eta Odolaz bethi behar bezala baliatzeko
grazia. Halabiz.

BATEK. — O Jainko guziz ona, — Eliza
Sainduak egun ohoratzen duen sainduari
— sari ederra eman diozu zeruan;

DENEK. — Nahi dugu guk ere, — zure la-
guntzarekin batean — saindu hori bezala
bizi — eta sari bera irabazi, Jesu-Kristoren
izenean. Halabiz.

Epistola

BATEK. — Jondoni Paulok bere giristi-
noeri igorri letra :

DENEK. — Haurhide maiteak, — Jesusen
ganik jakina dut eta errana dautzuet —
Ortzegun-Saindu arratsean Jesus Jaunak
hartu zuela ogia eta erran :

BATEK. — « Har zazue eta jan, — hau da ene Gorputza. — Egizue hau ene orhoitzapenetan. »

DENEK. — Gero hartu zuen kalitza eta erran :

BATEK. — « Har zazue eta edan, — hau da ene Odola. — Egizue hau ene orhoitzapenetan. »

DENEK. — Milesker Jainkoari.

Ebanjelioa

(Apheza aldare ezkerrean da)

BATEK. — Egun hartan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : « Ene gorputza egiazki janari bat da — eta ene odola egiazki edari bat. »

DENEK. — « Ene gorputza jaten duena eta ene odola edaten, — hura ni baitan dago — eta ni haren baitan. »

BATEK. — Ni naiz zerutik jautsi ogia. — Ogi hortarik jaten duenak — badu bethiko bizia.

DENEK. — Ohore zuri, Jesu-Kristo.

Credo

(Apheza aldare erdian da)

BATEK. — Sinesten dut Jainko Aita botere guzia duena baitan, — zeruaren eta lurraren Kreatzalean;

DENEK. — Eta Jesu-Kristo, haren Seme bakar, gure Jauna baitan; — zoin kontzebitu baitzen Izpiritu-Sainduaren bertutez, — sortu zen Maria Birjina ganik, — pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, — kurutzefikatu zuten, — hil zen eta ehortzi zuten; — jautsi zen ifernuetarat; — hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik; — igan zen zeruetarat, — han jarria dago Jainko Aita botere guzia duenaren eskuinean; — handik ethorriko da bizien eta hilen jujatzerat.

BATEK. — Sinesten dut Izpiritu-Saindua baitan;

DENEK. — Eliza katoliko sainduan; — Sainduen partaliertasunean; — bekatuen barkamenduan; — haragiaren phiztean; — bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

II. — OFERTORIOA

Ogiaren ofreitzea

BATEK. — Jainko guziz saildu eta bote-
retsua,

DENEK. — Onhets zazu, othoi, — aphezak
ofreitzen dautzun Ostia garbia.

BATEK. — Ofreitzen dautzugu Ostia hori
— gure bekatu eta lazakeriez barkamendu
galdatzeko,

DENEK. — Meza huntan diren giristin-
oentzat,

BATEK. — Bai eta bizi ala hilak diren gi-
ristino guzientzat.

DENEK. — Balia bekigu guzieren zerurat
joaiteko.

Arnoa kalitzan

(Apheza aldare eskuinerat joan da)

BATEK. — Aphezak kalitzaren barnean
emaiten du — arno chorta bat ur ttintta ba-
tekin.

DENEK. — Aphezak ur ttintta hori arnoa-
ren barnean emaiten duen bezala, — nahi

ditugu eman guk ere, o Jesus ona, — gure sakrifizio eta sofrikario ttipiak — zure kurrutzeko sakrifizio haundiaren barnean. Halabiz.

Arnoaren ofreitzea

(Apheza aldare erdirat jin da)

BATEK. — Jauna, ofreitzen dautzugu salbamenduko kalitza bere arnoarekin.

DENEK. — Agian gozoki onhetsiko duzu gure eskaintza hori — gure eta mundu guziaren salbamendukotzat.

Erhien garbitzea

(Apheza aldare eskuinerat joan da)

BATEK. — Jauna, aphezak bere erhiak garbitzen dituen bezala,

DENEK. — Guk ere nahi dugu garbitu gure bihotza bekatu guzietarik, — mahain saildurat garbi garbia hurbiltzeko sarri.

BATEK. — Gure arima etzazula utz galtzerat gaichtoekin.

DENEK. — Gaizkitik begira gaitzatzu — eta bide onean atchik. Halabiz.

Trinitate Sainduari othoitza
(*Apheza aldare erdian da berriz*)

BATEK. — Trinitate guziz Saindua, —
onhets zazu, othoi, sakrifizio hau.

DENEK. — Sakrifizio hau egiten dautzugu
Jesusen izenean.

BATEK. — Bai eta Ama Birjinaren eta
Saindu guzien ohoretan.

DENEK. — Zerutik othoitz egin bezate gu-
retzat. Halabiz.

Orate fratres

(*Apheza itzuli da guri buruz*)

BATEK. — Aphezak galdatzen dauku —
othoitz egitea harekin eta harentzat.

DENEK. — Jainko Jauna, onhets zazu —
aphezak eskaintzen dautzun sakrifizioa.

BATEK. — Sakrifizio hori eskaintzen
dautzu — zure Izen sainduaren ohoretan,

DENEK. — Bai eta gure eta Eliza saindu
guziaren onetan.

Othoitz ichila

BATEK. — O Jainko urrikalmenduz be-
thea, — othoi, amultsuki beha zozu — al-
dare gainean den ofrendari;

DENEK. — Eta emozu zure Eliza Sain-
duari — batasuna eta bakea. Halabiz.

BATEK. — O Jainko Jauna, — egun
ohoratzen dugun Sainduak — zerua irabazi
du — Meza Saindua maitatuz;

DENEK. — Iguzu beraz guri ere — Meza
Sainduaren maitatzeko grazia. Halabiz.

Prefazioa

BATEK. — Jainko guziz boteretsu eta be-
thierekoa,

DENEK. — Egiazki zor dautzugu milesker
erraitea.

BATEK. — Milesker erraiten dautzugu —
Jesu-Kristo zure Semearekin batean.

DENEK. — Zure adoratzeko eta laudat-
zeko, — utz gaitzatzu zeruko aingeru guzie-
kin erraiterat : — Saindu,

BATEK. — Saindu,

DENEK. — Saindu zare, o Jainkoa. —
Ohore zuri zeru gorenean.

BATEK. — Ongi-ethorri — zure izenean heldu den Jesus onari.

DENEK. — Ohore zeru gorenean.

III. — SAGARA

Othoitz Eliza sailduarentzat

BATEK. — Othoitz egin dezagun Eliza sailduarentzat.

DENEK. — Jainko guziz ona, — Jesu-Kristo zure Semeak egiten dautzun sakrifizio hunen gatik, — mundu guzian emozu bakea zure Eliza sailduari,

BATEK. — Heda zazu bazter guzietarat,

DENEK. — Zaint zazu eta batasunean atchik.

BATEK. — Benedika zazu gure Aita-Saindua,

DENEK. — Benedika zazu gure Jaun Aphezpikua,

BATEK. — Benedika gure aphezak,

DENEK. — Benedika giristino guziak.

Othoitz bizientzat

BATEK. — Orhoit zaite, Jauna, zure zerbitzariez,

DENEK. — Gure ait'amez,

BATEK. — Gure haurhideez,

DENEK. — Maite gaituzten guziez,

BATEK. — Maite ditugun guziez,

DENEK. — Meza huntan diren giristinoez.

BATEK. — Emozute guzieri zure laguntza,

DENEK. — Eta Meza huntako merezimenduez baliatzeko grazia.

Othoitz zeruko Saindueri

BATEK. — Jauna, nahi dugu bat egin —
Jesusen Ama bethi Birjinarekin,

DENEK. — Apostolu sailduekin,

BATEK. — Martir guziekin,

DENEK. — Zeruko aingeru eta saildu guziekin.

BATEK. — Ethor bedite denak orai aldare hunen oinerat,

DENEK. — Jesus maiteari ongi-ethorri egiterat gurekin.

KONTSEKRAZIONEA

Ogiaren kambiatzea Jesusen Gorputzerat

BATEK. — Aphezak hartzen du eskuetan ogia, — benedikatzen du — eta erraiten :
HAU DA ENE GORPUTZA.

(Aphezak Ostia Saindua altchatzearekin)

DENEK. — Ene Jauna eta ene Jainkoa.

Arnoaren kambiatzea Jesusen Odolerat

BATEK. — Aphezak hartzen du eskuetan kalitza, — benedikatzen du arnoa — eta erraiten : **HAU DA ENE ODOLA.**

(Aphezak kalitza altchatzearekin)

DENEK. — Ene Jauna eta ene Jainkoa.

Jesus aldare gainean

BATEK. — O Jesus, aingeruek ikusten zaituzten bezala, — nik ere ikusten ahal bazinitut hor aldare gainean.

DENEK. — Hor zare egiazki eta errealki, o Jesus, — Ortzirale-Sainduz kurutzearen gainean bezala.

BATEK. — Zure Aitari erakusten diozkatzu zure zauriak,

DENEK. — Zure sarraskiak,

BATEK. — Zure burua, elhorriz koronatu,

DENEK. — Zure begitartea, thuz eta izerdiz zikindua,

BATEK. — Zure ezpainak, egarriak belztuak,

DENEK. — Zure oin eta eskuak, itzek zirlatuak,

BATEK. — Zure gorputz guzia, azotek chehatua.

DENEK. — Barka, Jauna, barka, othoi, gure bekatuak.

Othoitz hilentzat

BATEK. — Jauna, orhoit zaite ere Purgatorioetako arimez;

DENEK. — Han ditazken gure ahaideez eta ongi-egilee.

BATEK. — Emozute, othoi, zeruko argia eta bakea,

DENEK. — Jesu-Kristoren izenean, Halabiz.

Othoitz guretzat

BATEK. — Bekatorosak gare, Jauna,

DENEK. — Bainan zu osoki ona zare.

BATEK. — Emaguzu beraz guri ere,

DENEK. — Apostolu, martir eta saindu guziera bezala,

BATEK. — Zerurat heltzeko grazia,

DENEK. — Jesus zure Semearen izenean.
Halabiz.

BATEK. — Jesus beraren gatik, — Jesus-ekin eta Jesus baitan,

DENEK. — Ohore eta loria zuri, — Jainko Aita,

BATEK. — Ohore eta loria zuri, — Jainko Izpiritu-Saindua,

DENEK. — Ohore eta loria — orotan eta bethi.

Gure Aita

BATEK. — Gure Aita, zeruetan zarena,

DENEK. — Erabil bedi sainduki zure izena;

BATEK. — Ethor bedi zure erresuma;

DENEK. — Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

BATEK. — Iguzu egun gure eguneko ogia;

DENEK. — Barka zagutzu gure zorrak, —
guk gure ganat zordun direneri barkatzen
dioletegun bezala;

BATEK. — Eta ez gaitzatzula utz tenta-
mendutan erortzerat;

DENEK. — Bainan begira gaitzatzu gaitze-
tik. Halabiz.

Ostia Sainduaren puskatzea

BATEK. — Bai, begira gaitzatzu. Jauna,
gaitzetik,

DENEK. — Gaitz guzietarik,

BATEK. — Bereziki bekatutik,

DENEK. — Eta emaguzu, Jauna, zure ba-
kea. Halabiz.

Agnus Dei

BATEK. — Jainkoaren Bildots, gure beka-
tuak zure gain hartu ditutzuna,

DENEK. — Urrikal zakizkigu.

BATEK. — Jainkoaren Bildots, gure beka-
tuak zure gain hartu ditutzuna,

DENEK. — Urrikal zakizkigu.

BATEK. — Jainkoaren Bildots, gure bekatuak zure gain hartu ditutzuna,

DENEK. — Emaguzu bakea.

IV. — KOMUNIONEA

Komunione aintzineko othoitzak

BATEK. — O Jesus ona, sinesten dut hor zarela egiazki Ostia Sainduan,

DENEK. — Sinesten dut, o Jesus, bainan ez aski. — Azkar zazu oraino ene fedea.

BATEK. — O Jesus boteretsua, — adoritzen zaitut hor Ostia Sainduan.

DENEK. — Zu zare, o Jesus, — ene Jainkoa, — ene Kreatzalea, — ene Nausia.

BATEK. — O Jesus hain ona, — ez naiz on, ni, zure errezebitzeko;

DENEK. — Zeren eta bekatu egin baitut, — sobera bekatu — zure kontra;

BATEK. — Bainan zure hitz bat askiko da ene sendatzeko;

DENEK. — Errazu, o Jesus, hitz hori,

BATEK. — Errazu, othoi, hitz bakar hori,

DENEK. — Eta ene arima garbi garbia izanen da.

BATEK. — Ene Salbatzale maite maitea, — badut konfientzia zu baitan,

DENEK. — Bai, badut konfientzia, — bairan ez aski. — Azkar zazu oraino ene esperantza.

BATEK. — O Jesus guziz maitagarria, — maite zaitut,

DENEK. — Maite zaitut ene bihotz guziaz,

BATEK. — Maite zaitut ene indar guziez;

DENEK. — Maite zaitut, o Jesus, — bairan ez aski. — Haundi zazu oraino ene amodioa.

BATEK. — Zato bada, o Jesus, — zato ene bihotzerat,

DENEK. — Senda zazu ene bihotza bere gaitz guzietarik,

BATEK. — Bethe zazu ene bihotza zure graziez,

DENEK. — Zato, othoi, o Jesus, — ene Jesus, — eta zaude bethi ene bihotzean.

(Komuniatu nahi duena behar da orai hurbildu mahain saildurat.)

Komunione ondoko othoitzak

BATEK. — Ene Jainko guziz maitea, — ene bihotzean zare orai — zeruan bezain segurki.

DENEK. — Adorutzen zaitut ene bihotzean; — zu zare ene Jauna, — ene Jainkoa, — ene Nausia.

BATEK. — Bainan naizen bezain ttipia eta ezdeusa, — etzaitut adorutzen ahal behar bezala.

DENEK. — O Maria, Jesusen Ama eta ene Ama, — zeruko aingeru eta saindu guziak, — adora zazue enekin eta enetzat — ene bihotzean den Jesus maitea.

BATEK. — Milesker, o Jesus, — milesker bihotz bihotzetik, — zeren nahi izan baitzare ethorri ene baitarat.

DENEK. — Bainan ez da aski milesker erraitea, o Jesus ona; — nola erakutsiko dautzut ene ezagutza haundia ?

BATEK. — O Jesus, zu niri eman zare dena, — nik orai zer emanen dautzut zuri ?

DENEK. — O Jesus maitea, emaiten dautzut osoki ene bihotza;

BATEK. — Emaiten dautzut ene arima,

DENEK. — Emaiten dautzut ene gorputza,

BATEK. — Emaiten dautzut ene bizia,

DENEK. — Emaiten dautzut — naizen gu-
zia,

BATEK. — Emaiten osoki eta bethikotz,

DENEK. — Emaiten — sekulan gehiago
gibelerat hartu gabe.

BATEK. — Hortakotz, o ene Jesus, — nahi
zaitut maitatu egiazki,

DENEK. — Nahi zaitut maitatu ene lagun
edozoin baino gehiago,

BATEK. — Ene adiskide hoberena baino
gehiago,

DENEK. — Nahi zaitut maitatu ene aita
maitea baino gehiago,

BATEK. — Maitatu ene ama maitea baino
gehiago,

DENEK. — Nahi zaitut maitatu ene burua
baino gehiago.

BATEK. — Eta maite zaitudalakotz hoin-
bertze, — hitzemaiten dautzut — ez dudala
gehiago bekaturik eginen;

DENEK. — Eta begiratuko ditudala zure
manamendu guziak.

BATEK. — Eta erraiten balin badautazu
— ene ait-amak utzirik — zure ondotik
ethortzeko,

DENEK. — Mintza zaite, o Jesus, ene bihotzari — eta zuk errana egingen dut.

Azken othoitzak

(Kalitza garbiturik eta oihalaren azpian emanik, joan da apheza aldare eskuinerat.)

BATEK. — O Jesus Jauna, — zure Gorputz Sakratua jaterat eman ez, — zure zerua eman daukuzu jasta;

DENEK. — Iguzu, othoi, — orai jastatu dugun zeruko zoriona — ardiets dezagun egun batez bethikotz. Halabiz.

BATEK. — O Jainko guziz ona, — egun ohoratzen dugun Saindua — ardura komuniatuz da saindutu;

DENEK. — Emaguzu guri ere, othoi, — ardura komuniatzeko gostua eta gutizia. Halabiz.

Aphezaren benediziona

BATEK. — Benedika gaitzala Jainko guziz boteretsu :

DENEK. — Aita, Seme eta Izpiritu-Sainduak. Halabiz.

Azken Ebanjelioa

BATEK. — Bethidanik bazen Berboa,
Jainkoaren Semea,

DENEK. — Eta Berboa Jainko da;

BATEK. — Harek kreatuak ditu oro,

DENEK. — Harek kreatu du mundu hau.

BATEK. — Mundu huntarat ethorri da,

DENEK. — Eta mundu hunek ez dio behatu ere;

BATEK. — Bere etcherat ethorri da,

DENEK. — Eta etchekoek ez diote egin ongi-ethorri.

BATEK. — Bainan ongi-ethorri egin diotenak,

DENEK. — Hura baitan sinetsi dutenak,

BATEK. — Bilhakatu dira Jainkoaren haur.

DENEK. — Eta Jainkoaren Semea gizon egin da — eta egon da gutartean.

BATEK. — Eta ikusi dugu bere distirarekin — graziaz eta egiaz bethea.

DENEK. — Eskerrak Jainko maiteari.

KOMUNIONE AINTZINEKO AKTAK

FEDEZKO AKTA. — Jesu-Kristo ene Jauna, sinesten dut zinez hor zarela egiazki Aldareko Sakramenduan, eta zure errezebitzerat noala Komunione Sainduan.

ADORAZIONEZKO AKTA. — Ene Jesus, adoratzen zaitut hemen, ogiaren itchuraz gordea. Ezagutzen dut ene Kreatzalea eta Jainkoa zarela.

UMILTASUNEZKO ETA KONTRIZIONEZKO AKTA. — Jauna, ez dut merezi ene baitan sar zaiten, hanbat ofentsatu zaitudan ondoan, bainan errazu bakarrik hitz bat, eta ene arima sendatua izanen da. Urrikalmen-
duzko hitz bat errazu, eta barka-zkidatzu ene bekatuak; bihotzetik hastiatzen ditut.

ESPERANTZAZKO AKTA. — Salbatzale maitea, esperantza dut ni baitan egoiterat jinez, ene arima garbituko duzula, eta betheko zure graziez eta amodioaz.

AMODIOZKO AKTA. — O Jesus, ene ontasun bakarra, maitatu nauzu zure haragiaz hazi nahirainokoan; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez.

Nahi naiz bizi eta hil zure amodio sainduan.

DESIRKUNDEZKO AKTA. — Zato, Jesus, zato ene bihotzerat; libra zazu bere gaitz guzietarik; bethe zazu graziez; khartsuki desiratzen dut zure errezebitzea.

KOMUNIONE ONDOKO AKTAK

ADORAZIONEZKO AKTA. — Ene Jainkoa eta ene Salbatzalea, adoratzen zaitut ene bihotzean zarelarik, eta juntatzen naiz Aingeruek eta Sainduak zure ohoratzeke zeruan bihurtzen daitzuten adorazioneri.

ESKER ONEZKO AKTA. — Eskerrak deraitzut, ene Salbatzale maitea, zeren nitarat jin nahi izan zaren Komunione Saindu huntan. Zer bihurtuko derautzut zure ongi-egin guzientzat?

OFREIMENEZKO AKTA. — Jesus Jauna, emaiten nitzaitzu naizen guzia osoki; zu niri eman zaren bezala; egidazu grazia, zuretzat baizik ez bizitzeko.

AMODIOZKO AKTA. — Ene Jesus ona, maite zaitut ahalaz khartsuki; zure amodioaren suak bero, erre, suntsi dezala ene bihotza.

CHEDE ZINEZKO ETA GALDEZKO AKTA. —
Ene Jainkoa, hartzen dut chede zin bat, zuk
hastio ditutzun guzietarik begiratzeko, eta
ni-ganik galdatzen ditutzun guzien egiteko.
Egizu zure graziaz, maita zaitzadan eta lo-
rifika, ene biziak dirauno eta mende guzie-
tan.

Othoitz baliosa

Huna, o Jesus ona eta guziz ezia, non
belhauniko erortzen naizen zure aintzinean;
eta arimako khar handienarekin othoizten
zaitut eta errekeritzen, sar ditzatzun barna
ene bihotzean fedezko, esperantzazko eta
karitatezko sendimendurik bizienak, bai
eta ene bekatuen egiazko urrikia, eta
gehiago bekatuak ez egiteko chede azkar-
rena : bihotzeko amodio eta min handi ba-
tekin zure bortz zauriak ene baitan ikusten
ditudalarik eta gogoan erabiltzen, begien
aintzinean ukanez David profetak zutaz
zure ahoan ezartzen zituen hitz hauk, o
Jesus ona : « Zilhatu dituzte ene eskuak
eta ene oinak, kondatu ene hezur guziak. »

MEZA NAUSIA

(*Meza nausian kantatzen diren kantuak*)

Asperges me...

Asperges me, Domine, hyssopo, et mundabor* : lavabis me et super nivem dealabor.

Miserere mei, Deus*, secundum magnam misericordiam tuam... Gloria Patri...

Ostende nobis misericordiam tuam.

Et salutare tuum da nobis.

Domine, exaudi orationem meam.

Et clamor meus ad te veniat.

Kyrie

Kyrie, eleison (*hiru aldiz*).

Christe, eleison (*hiru aldiz*).

Kyrie, eleison (*hiru aldiz*).

Gloria in excelsis

Gloria in excelsis Deo; et in terra pax
hominibus bonae voluntatis.

Laudamus te.

Benedicimus te.

Adoramus te.

Glorificamus te.

Gratias agimus tibi, propter magnam glo-
riam tuam.

Domine Deus, Rex cœlestis, Deus, Pater
omnipotens.

Domine, Fili unigenite, Jesu Christe.

Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris.

Qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Qui tollis peccata mundi, suscipe depre-
cationem nostram.

Qui sedes ad dexteram Patris, miserere
nobis.

Quoniam tu solus sanctus.

Tu solus Dominus.

Tu solus Altissimus, Jesu Christe.

Cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris.

Amen.

Credo

Credo in unum Deum, Patrem omnipotentem : factorem cœli et terrae, visibilium omnium et invisibilium.

Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei Unigenitum.

Et ex Patre natum, ante omnia saecula.

Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero.

Genitum, non factum, consubstantialem Patri; per quem omnia facta sunt.

Qui, propter nos homines et propter nostram salutem, descendit de cœlis.

Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Maria Virgine, et Homo factus est.

Crucifixus etiam, pro nobis, sub Pontio Pilato, passus et sepultus est.

Et resurrexit tertia die secundum Scripturas.

Et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris.

Et iterum venturus est, cum gloria, iudicare vivos et mortuos; cujus regni non erit finis.

Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit.

Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur, qui locutus est per Prophetas.

Et unam, sanctam, catholicam et apostolicam Ecclesiam.

Confiteor unum baptisma, in remissionem peccatorum.

Et exspecto resurrectionem mortuorum,
Et vitam venturi saeculi. Amen.

Sanctus

Sanctus, sanctus, sanctus Dominus Deus Sabaoth.

Pleni sunt cœli et terra gloria tua. Hosanna in excelsis.

Benedictus qui venit in nomine Domini.
Hosanna in excelsis.

Agnus Dei

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

KANTIKAK

(*haurren Mezan Kantatzen ahal direnak*)

Zato, Izpiritua

Errepika

Zato, Izpiritua,
Kreatzaile saindua,
Bisita zatzu hotzak,
Othoi gure bihotzak.

1

Bethe zatzu graziez,
Zerutik egorriez,
Gure adimenduak
Zeronek moldatuak.

2

Kontsolatzale ona
Izendatzen zarena,
Dohain baliosena
Jaun zerukoarena.

3

Ithurburu bizia,
Amodio garbia,
Karitate khartsua,
Gantzukari saindua.

Barka Jauna

Errepika

Barka, Jauna! Bai dolu dugu
Zu hanbat ofentsaturik,
Othoi, urrikal zakizkigu
Ostia saindu hortarik.

1

Aithortzen dugu zaitugula
Hainitz eta hainitz laidostatu;
Zure ongiak ditugula
Mila mila bekatuz pagatu.

2

Zeru ederra dugu hetsi
Zure kontra egin bekatuez;
Ifernua dugu merezi
Gure krima ikharagarriez.

3

Salbatzale guziz saindua,
Zure kontra gira gu alchatu
Hastio duzu bekatua,
Eta guk bekatua maitatu.

Dezagun Kanta

1

Dezagun kanta gogotik,
Gaiten guziak bozkaria,
Gure salbatzea gatik
Jesus, eman duzu bizia.
Bai, bihotzaren erditik
Dezagun kanta gogotik.

2

Dezagun kanta gogotik,
Zure odol preziatua
Ichuri duzu gu gatik;
Zaite, o Jesus, laudatua.
Bai, bihotzaren, etc...

3

Dezagun kanta gogotik,
Nahiz arimak zeruratu,
Leize beltz ifernukotik
Jesus, gaitutzu begiratu.
Bai, bihotzaren, etc...

Bihotz Jesus maitearena

1

Bihotz Jesus maitearena,
Graziaren ithurria,
Hemen naiz, Bihotz samurrena,
Zure ganat ethorria.

Errepika

O ezin aski laudatuzko
Bihotz garbi sakratua,
Noiz zaitul bada maitatuko,
Zerk nauka sorhaitua ?

2

Bihotz enetzat sustatua,
Berant zaitut ezagutu,
Bihotz ezti, preziatua,
Etzaitut aski maitatu.

3

Alferretan nauzu bilhatu,
Bihotz bethi zabaldua;
Zure ganik naiz apartatu,
Oi! hau da zoramendua!

○ Jesusen Bihotz samur

1

O Jesusen Bihotz samur,
Enetzat idekia,
Othoi emazu neurean
Zu ganako lehia.

Errepika

Ikusiz zure burua
Arrantzez bethea,
Niholere ez dut nahi
Lore pean neurea.

2

Kurutzea dakarkezu
Zure bihotz garbian,
Nik ere dut ekarriren
Neurearen erdian.

3

Jasanen dut kurutzea
Gogotik zuk bezala;
Sekulan salbamendurik
Izin duket bertzela.

Adora dezagun

Errepika

Adora dezagun Jesus Jainko Jauna,
Sakramendu huntan gurekin dagona.

1

Jesus amodioz bihotza gaindian,
Zoin miragarri zen azken afarian;
Guretzat zelarik hiltzerat abian,
Gerokotz ere zen gurekin nahian.

2

Apostolueri erraiten diote :
« Ni gaur saldua naiz; bihar hilen naute.
Aitaren ganako denbora zait bethe,
Huna orai zonbat zaituztedan maite. »

3

Ogia harturik, mintzo da Jainkoa :
« Hau da ene Gorputz kurutzerakoa. »
Gero kambiatuz orobat arnoa :
« Hau da ene Odol ichuri gogoa. »

Huna bildots eztia

Errepika

Huna bildots eztia,
Egiazko ogia,
Zerutik da jautsia;
Dugun adora.

1

Ostian zarela
Dugu sinesten,
Zeruan bezala
Hor zu kausitzen.

2

Adoratzen zaitut,
Jesus eztia,
Othoi emadazut
Fede bizia.

3

O bihotz maitea,
Deitzen gaitutzu,
Gutan egoitea
Bilhatzen duzu.

Oi mirakulu guziz

1

Oi mirakulu guziz espantagarria,
Ogiaren iduriz Jesus estalia!
Hura dut adoratzen aldare gainean,
Hura bera dut jaten komunionean.

2

Ene begiek Jesus han ez dute ikusten,
Gorputzeko sentsuek ez dute sentitzen;
Bainan duda gabe dut han dela sinesten,
Fedeak argiturik, han dut ezagutzen.

3

Jesusek egin zuen azken afaria,
Janaritzat emanik bere haragia;
Haragi saindu hura jaten dut nik ere,
Hura janik uste dut bizi bethiere.

Oi zer ogi dut ikusten

1

Oi zer ogi dut ikusten
Gure aldaretarat
Zeru gorenetik jausten
Arimen bazkatzerat.

Errepika

Bihotz khartsua,
Amultsua,
Gure janari zare bilhakatzen!
Ordainez nola zaitut maitatzen?

2

Jaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen;
Oi! hau da misterioa!
Gizona Jainkoztatzen!

3

Enekin bat egitea
Duzu bada bilhatzen.
Zer duzu, Jesus maitea,
Ene baitan aurkitzen ?

Amodio, ohore

Errepika

Agur, agur, agur Maria.
Agur, agur, agur Maria.

1

Amodio, ohore
Ama Birjinari,
Maria notha gabe
Kontzebituari !

2

Gure lehen ait'amen
Bekatuak ez du
Sekulan Mariaren
Arima goibeldu.

3

Maria zu hain garbi,
Hain saindu sortua,
Zuk duzu sugeari
Lehertu burua.

4

Gure ama maitea,
Zuk othoi zerutik,
Eskualdunen fedea
Idukazu chutik.

Ikusiren zaitut

1

Ikusiren zaitut, Andre dena Maria,
Jesusen aldean zeruan jarria.

Errepika

Zeru gorenean { berriz
Ikusiren zaitut. }

2

Ikusiren zaitut amultsuki onhesten
Agur bat lurretik zaitzunean heltzen.

3

Ikusiren zaitut fededunen artean
Bihotzak beirutzen garbitasunean.

4

Ikusiren zaitut zeruan, ama ona;
Ikusiren zaitut, oi zer zoriona!

Jainkoaren Ama

Errepika

Jainkoaren Ama, Ama guziz ona,
Zaitzagun maita, bethi, bethi. (*berriz*)

1

Guk gure amatzat hartzen zaitugu,
Bethi zu maitatuz bizi nahi dugu;
Azken hatseraino kantatuko dugu
Bethi, bethi.

2

Hemengo hersturak ikusten ditutzu,
Zoin den lotsagarri bizitzea dakizu,
Beraz zure haurrak hemen beirazkitzu,
Bethi, bethi.

3

Gure flakeziek zure bihotza
Dute erdiratzen, samurra baita,
Gutaz izan zazu oi! urrikalmendu
Bethi, bethi.

Uholde baten pare

1

Uholde baten pare orai bekatuak
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak.
Non dire fededunak ? Non dire justuak ?
Azken eguna hurbil othe du munduak ?

Errepika

Othoi, ama maitea,
Urrikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
Hasarre baitugu.

2

Nor da gure artean erran dezakenik :
« Ez naiz ni deusen beldur, nik ez dut hobenik ? »
Zuk dirozu, Maria, hain garbi izanik
Gure grazi' ardiets Jainkoaren ganik.

3

Gizonen arbuioek aserik Jainkoa.
Bere azotearen higitzerat doa;
Nork orai atchik liro Jaunaren besoa ?
Zu zare zu, Maria, indar hartakoa.

Zerua saritzat

Errepika

Zerua, zerua, zerua saritzat. (*berriz*)

1

Zerua saritzat,
Har kuraje, Kristauak,
Hemengo nigarrentzat
Derauka Jainkoak.

2

Zerua saritzat,
Salba beraz arimak,
Utzi mundutarrentzat
Atsegin galkorrak.

3

Zerua saritzat,
Hots bada, o gaztea,
Dezazu bethikotzat
Maita bertutea.

4

Zerua saritzat,
Nola ez bozkaria ?
Dugu sarri guretzat
Bethiko loria.

O Maria, Ama maitea

Errepika

O Maria, Ama maitea,
Begira zazu Eskualdun Fedea :
Suhar eta khartsu, azkar egon bedi
Hersturen erdian bethi
Suhar eta khartsu, azkar egon bedi
Hersturen erdian bethi!
Gauden gu Eskualdun bethi!

1

Salutatzen zaitut, Maria,
O Ama guziz ezia,
Maite dut zurekilan Jesus,
Gure Errege handia.

2

Zu Erregina Ama zira,
Errege duzu Semea,
Jainko Seme Erregearen
Agur, o Ama maitea.

3

Zu zaitu zu Jainko handiak
Guzietarik hautatu,
Zu emazte guziak baino
Gehiago ohoratu.

NIHIL OBSTAT.

Baionae, die 11^a Februarii 1942.

A. LARRALDE,
ensor.

Imprimatur.

Baionae, die 11^a Februarii 1942.

P. DAGUERRE,
vic. gen.

AURKIBIDEA

Meza aintzinean	1
Meza Saindua	3
Komunione aintzineko aktak	26
Komunione ondoko aktak	27
Othoitz baliosa	28
Meza nausia	29
Kantikak	34
Adora dezagun	38
Amodio, ohore	41
Barka Jauna	34
Bihotz Jesus maitearena	36
Dezagun kanta	35
Huna bildots ezia	39
Ikusiren zaitut	42
Jainkoaren Ama	43
Oi mirakulu guziz	39
Oi zer ogi dut ikusten	40
O Jesusen Bihotz samur	37
O Maria, Ama maitea	46
Uholde baten pare	44
Zato, Izpiritua	34
Zerua saritzat	45



O jenu, o jenu, ostian zarena
Aukesten dut jainko zarela
Zu baitan dut ene esperantza
Maitezaitut bihotz guziaz

Ustaritz le 31 Octobre 1954

Cher Monsieur le Curé,

La dernière édition de Haurren Meza s'étant enfin épuisée, l'excellent accueil que nombre d'entre vous lui avez fait, m'ont donné le courage (courage financier) de le rééditer. La nouvelle édition contient exactement le même texte, mais sur le bon conseil de quelques-uns d'entre vous, a pris le titre de Meza Saindua. L'ancien nom de Haurren Meza pouvait en effet laisser croire que cette Messe était uniquement destinée aux enfants, alors que plusieurs Curés auraient voulu l'utiliser certains dimanches comme Messe dialoguée entre adultes, une jeune fille ou un groupe assurant la première partie (Batek) et tous les autres assistants la seconde partie (Denek).

Ceux qui malgré le titre en ont déjà fait l'expérience ont été assez bons pour me dire que cela "rendait" très bien, ajoutant que c'est à ces messes dominicales dialoguées que pour la première fois, ils ont éprouvé la consolante impression d'une participation active de toute l'assistance à la Sainte Messe.

Je me permets de vous offrir l'exemplaire ci-joint. Si cela vous intéresse, je peux vous en livrer la quantité que vous voudrez à 30 frs l'exemplaire, port à votre charge; vous pourrez le revendre à 40 frs.

Si les commandes de plusieurs Curés de la même région m'arrivaient à peu près en même temps et suffisamment importantes je me ferais un plaisir de les porter moi-même et gratuitement jusqu'au presbytère de votre Doyen et même, si possible, jusqu'à chez vous.

Veuillez croire, cher Monsieur le Curé, à mes meilleurs sentiments dans le Christ.

Abbé L. LEON

P.S. Il me reste encore pas mal de Ebanjelio Saindua! Ne voulez vous pas m'aider à les écouler? Je vous les cède à 100 F. l'exemplaire, port à votre charge, avec possibilité de les vendre à 150 frs l'exemplaire.